



1. PAUSOA

IKUSPEGI-ALDAKETA: ZER GERTATUKO LITZATEKE, BALDIN ETA...?

1. Pentsatu zurekiko:


Imajinatu beste herrialde batera ihes egin duzula:

Zer litatzeke niretzat bereziki garrantzitsua?

Zer behar nuke beste herrialdera onik ailegatzeko, nire gizarte berriari ekarpenak egiteko eta han bizi diren pertsonekin harmonian bizitzeko?

Errefuxiatua banintz, zer amestuko nukeen: zertarako izango nuke eskubidea, zer eskatuko nuke?

Eztabaidatu, mesedez, zure hausnarketa pertsonalak taldean, eta sortu, elkarrekin, "Errefuxiatuen Eskubideen Adierazpena".



2. PAUSOA

ZER OINARRIZKO ESKUBIDE DITUZTE ERREFUXIATUEK?

Errefuxiatuen oinarrizko eskubideak aipatzen dituen bideoa(k) ikusi eta gero, eztabaidatu honako galdera hauei buruz:

Zure ustez, zer puntutaraino betetzen dira eskubide horiek gure herrialdean?

Zer alderditan egin genezake guk (eta gure herrialdeak) gehiago, errefuxiatuen eskubideak errespetatzeko?

Zer eskubide ukatzen dituzte tokiko komunitate batzuek?

Zer arrazoik sor dezakete ukatze hori eta zer puntutaraino dago justifikatuta?

Zer balio adierazten ditut eskubide horiek babestu edo ukatzen ditudanean?



3. PAUSOA

ROL-JOKOA: NOLA BIZI NAHI DUGU ELKARREKIN?

Egoera

Orain dela aste batzuk, X Hiria izeneko herri txikian, errefuxiatuentzako kanpaleku bat sortu da, 400 lagunentzat. Familia askok haur txikiak dituzte.

Errefuxiatuak hara etorri baino lehen ere, herritar ekimen bat sortu zen ("Errefuxiatuak: gurekin ez!"), eta babes-ema-tearen kontra dago erabat. Hark dioenez, krimen-kopurua handitu egingo da eta errefuxiatuek bestelako arriskuak ekarriko dituzte, eta X Hiriari eskatzen dio bertako herritarrez gehiago arduratzeko. X Hiriari badira gizarte-arazoak. Ekimenak hauxe eskatzen du: babes-lekua jartzea saihestezina bada, behintzat herritarrek babes ditzatela errefuxiatuengandik.

Aldi berean, boluntario talde bat antolatu da ("Ongi etorri errefuxiatuak!"), errefuxiatuei laguntza emateko eta errefuxiatuen eta herrialdeko pertsonen arteko harreman onak sustatzeko. Talde horrek errefuxiatuen oinarritzko eskubideak azpimarratzen ditu eta esaten du X Hiriko herritarrek ere onurak lortuko dituztela elkarbizitzaren ondorioz.

Berriki, zenbait lapurreta izan dira, eta errefuxiatuei egotzi zaizkie. Pertsona batzuk kanpalekuko zarataz eta zaborraz kexatzen dira, eta zurrumurruek diote errefuxiatuek modu "oso susmagarrian" jokatzeko dutela eta arriskutsuak ematen dutela hirian barrena ibiltzen direnean. Halaber, errefuxiatuak kexu dira denda batzuetan ez dietelako zerbitzatzen eta iraindu egiten dituztelako kalean. Esaten dute oso zaila dela harreman lagunkoiak izatea bertakoekin.

X Hiriko alkateak gatazkek indarra hartzea saihestu nahi du eta mahai-inguru bat jarri du abian. Honako hauek gonbidatu ditu: ekimen bakoitzeko bi ordezkari ("Ongi etorri errefuxiatuak!" eta "Errefuxiatuak: gurekin ez!"), babes-lekutik hurbil bizi direnak eta bi errefuxiatu. Mahai-ingururako galdera gakoak: "Nola bizi gaitezke elkarrekin X Hiriari? Nork ditu zer eskubide eta zer betebeharrak? Zertan gaude ados etorkizunean elkarrekin bizitzeko?"



3. PAUSOA

ROL-JOKOA: NOLA BIZI NAHI DUGU ELKARREKIN?

Hartu aintzat galdera hauek rol-jokoaren ondoko hausnarketarako:



Zer nabaritu genuen?

Nolako estrategia hartu zuten parte-hartzaileek?

Aurreiritziak adierazi ziren edo pertsonaren bat iraindu zen?

Zer eskubide eta betebeharrak aipatu ziren errefuxiatuentzat eta bertakoentzat?

Zein argudio iruditu zitzaizkidan sendoak eta zein, ez?

Elkar ulertzea lortu da ala parte-hartzaile batzuk gailendu egin ziren?

Zer kontzeptu nabarmendu ziren komunitatean elkarrekin (ongi) bizitzeko?



Nola sentitu nintzen nire rolean?

Nola sentitu naiz, eskatu bazait "bizitza errealean" maite ez dudan jarrera bat antzeztea?

Besteak konbentzitzeko gai izan naiz? Nola?

Nire iritzia aldatu dut? Zergatik?

Gustura gelditu naiz prozesuarekin eta emaitzarekin? (hala ez bada: zeren falta sumatu dut edo zerk gogaitarazi nau?)

Eztabaida berriz ere izan ahalko banu, nola aurkeztuko nituzke nire argudioak, nolako jarrera hartuko nuke aurkeztutako gaiari dagokienez?

HAUSNARKETA



Idatzi zure ustez garrantzitsuenak diren hiru eskubideak, alegia, zer hiru eskubideri ez zeniekeen inolaz ere uko egingo beste herrialde batean egonez gero.



Egin zuretzat eskubide horiek adierazi edo sinbolizatzen dituen objektu baten argazkia.